



JOAN MARI LEKUONA

JOXEMARI ARANALDE

*Hura zen Don Manuel
Zu zara Joan Mari
(Haritschelhar)*

AURTEN ere, lehengo urtean bezalaxe, jaun bat dut gai **BOARSO** aldizkarirako. Eta nolako jauna igazko hura. Gauza bat zuen bakarrik txarra: Hildako batez idazten nuela. Aurtengoak ez du horrelakorik, eta askoz atseginagoa da bizi den lagun batez idaztea hil den batez baino.

Joan Mari Lekuonak 62 urte besterik ez du. «Horrenbeste?» galde diezaiokezu zeure buruari, irakurle, oihartzuar hau ezagutzen baldin bazenuen gaur baino lehen aurpegiz, eta gaur arte zenbat urte zituen ez baldin bazenekien. Horiexek ditu, ematen ez baldin badu ere hoinbeste dituenik. Ilea urdindu ez balitzaio, ez zirudikeen 1927 urtean sortua.

Sei urteren aldea dugu Joan Marik eta nik, eta kurtsoak ere horiexek izan bide ziren, dozenardi bat, nik Gasteizko seminario ederrean ezagutu nuenean. Horrenbeste urterena tarte haundia da, nahiz ikastetxe berean bizi, eta nik uste, aurpegiz baino lehen, izenez eta ospe ezagutu nuen oihartzuarra.

Joan berriak ginen gu seminario bikain hartara. 1950a zen urtea. Beltz haietakoa euskara kontuetan. Bertso eta olerki sariketa bat antolatu zuten ez dakit non. Gipuzkoa aldean nik uste; baina ez dakit non. Gogoan dudana, zera da: Joan Mari Lekuonak irabazi zuela olerki-saria. «AMA» zuen izena bere poesiak. Geroago irakurri ahal izan nuen. Saridun izate horren ospea da neri lehenik iritxi zitzaidan Joan Mariren berria. Aurpegiz geroago ezagutu nuen. Gregorianoko maisu izan genuen kapera nagusian eta orduan ezagutu nuen aurpegiz. Hainbeste aldiz begiratu behar izaten genion, izanez ere!

Ospe horri esker, lilurazko pertsonaia bat bilakatu zitzaidan oihartzuarra. Eta harrezkero arreta haundia hartu nion. Laister jakin nuen ingurukoengandik, apaizgai zintzo, kirolari azkar, ikasle argi, lagun maitagarri eta ez dakit nik beste zenbat gauza zela. Musikari fina zela, berri, neronek ikusten nuen asten behin eta birritan. Euskal-idazle saritua zela ere jakina neukan. Zer gehiago eska zekiokeen hogeitahirulau bat urtetako apaizgai bati? Eta zer gehiago behar nuen nik, neure baitan lilurazko irudi argitsu bat pitz zekidan?

Seminarioan beste harreman haundirik ez genuen izan. Sei urterena alde haundiegia zen apaizgaien artean harremanak izateko, non eta herri berekoak edo oso ingurukoak ez ziren. Hura atera zen seminariotik, eta guk artean karrera erdia geneukan zai. Ondorengo sei urtetan ez nuen beraren berririk izan esateko. Bertsolarien inguruan tokatu zitzaidan ikustea behin edo beste. Gainera, hiruzpalau urtez Erroma aldean ibili zen unibertsitatean seminariotik aterata. Ondoren Añorgako parroikiko koajutore izendatu zuten eta hiru urte egin zituen han.

Eta hara nola diren gauzak. Añorgako aldia egin eta berriro hura Erromara joan zenean, nik «bete» behar izan nuen haren zuloa porlan-herri horretan. «Don Joan Txiki» esaten ziotenaren orde zartu nintzen parroikian. Oihartzuarraren izen bereko gizona zegoen erretore garai hartan Añorgan—Don Joan Maria Galarraga errezildarra—, eta gorputzez gure hau baino askoz haundiagoa zelako, erretoreari Don Joan deitzen zioten eta koajutoreari Don Joan Txiki. Zenbaitek Txikia bakarrik ere esan ohi zuten Joan Mari Lekuonaz ari zenean.

Seminarioan bezalaxe, Añorgan ere, gauza on asko entzun nuen Jaon Marirengatik. Maitea zuten apaiz txikia. Mendizale haundia eta ibiltari aparta zela ere han esan zidaten. Baina herritarrek eta eliztarrek ezer esan ez balidate ere, ederki ikusiko nuen neronek, gertatu zen bezala, nolako erlijio-kutsu gozoa utzi zuen gure apaizak Añorgako parroikian. Igandero entzun nitzakeen berak ondutako kantuak eta bertsoak elizkizunetan. Ongi hornitua utzi zuen eliztargoa kantuzko otoitzez Joan Marik. Nolako graziarekin eta gustoarekin kantatzen zituztelako añorgatarrek! Gerora Euskal Herrian zehar zabaldu da bat baino gehiago. Hor dabil herriz-herri «Azken apari ezkeroz, Jauna...» delako kantu gozoa. Lan ederra egin zuten bi Joan Mari haiek, «Txikia» han izan zen hiru urte haietan.

Behin Añorgan beraren orde zartu nintzen ezker, beti elkarrengandik hurbil ibiliak gara Joan Mari eta biok. Bere

osaba Manuel erdian genuela askotan. Ez gara alperrik hoinbeste urtez liturgiako irakurgai eta otoizgaien itzultzaile izan. Badugu ordurik eta indarririk elkarrekin botarik lan horietan.

Osabarekin gehiago ilobarekin baino; baina biekin asko.

Eta zer esango dizut, irakurle, bertsolaritzaren inguruko joanetoriez? Hor ere alboko eta hurrengo izan nau Joan Marik. Aurreko nola izan? Elkarrekin erabaki dugu hainbat eta hainbat sariketa eta elkarrekin eman dugu hainbat hitzaldi eta abar. Elkarrekin ginen ere bertsolaritzak ezagutu duen egun eta iluntze eta gau ikaragarrienetako hartan ere. Xalbador zena omendua izan zen egun eta gorputz gelditu zen iluntze ta gau hartan, alegia. Ondoan ginen une lehegarri hartan. Haiek orduak! Eta alboan ninduen Joan Marik Joxeakin Mitxelena haundiaren hiletetan, nik bi begietan malakoak ikusi nizkionean.

Eta alboan narabila orain ere Herri-literaturaren Batzordean Euskaltzaindian. Aurretik ezin ebili, jakina. Nola egingo zuten bada bestela urtebeteko epean Euskaltzain Oso eta Euskaltzainburu-orde? Markak jarri ditu joan den urtebeteko honetan gure oihartzuarrak. Horregatik dakargu OARSO aldizkariara aurtengo honetan. Irakurleek jakin behar dute nor eta zer diren bertako idazleak. Ni hartu nautela berriemaile. Horixe da txarra hemen. Baina nik esan edo beste norbaitek esan, egia zera da: Jo dituela goiak euskal-letretan Joan Mari Lekuona Berasategi jaunak. Bejondaiola!

Baina modako sonaz eta karguz orain jo badu ere goia, izatez eta egintzaz aspaldidanik zuen joa. Hasera hartan bertan, duela 40 bat urte, zabaldu zen Joan Mariren argia Euskal Herrian zehar eta geroz eta dizdiratsuagoa izan da. Hor daude bere ikerlanak testigu. Herri-literatura sailean nagusiki. Hor dago eliz-euskararen eta eliz-literaturaren egin duen lan ederra. Eta hortxe dago, batez ere eta bereziki, poetaren emaitza.

Izan ere gure oihartzuarra, esanak esan eta besteak beste, olerkari bat da. Olerkari bete bat. Gizena. Argi asko ikusi du hori jendeak. Zein kantatu dute gure abeslariak? Letek, Imanolak eta abarrek kantatu duten poeta bat da Lekuona.

Ez da harrigarri, herriaren—ez gurearen bakarrik—sentimenduak jasotzen eta esaten jakin bait du. Gizakiaren egungo bihotz—egoeraren ispilu da Joan Mariren poesia. Eta humorerik eta irririk inoiz galtzen ez badu ere, «Mindura gaur» da neretzat oihartzuarraren poesiarik mardulena eta ederkien esana.

Baina nik esatea baino zerorrek ikustea hobe dela uste dut, eta «Mindura gaur» izenaren pean biltzen dituen olerkietako bat dakartzut honera oso-osoan egilearen ohoretan. «Porlandi» du izena. Hor ikusiko duzu zer eta zenbat den gizatasunez eta olerkariz Joan Mari Lekuona Berasategi Jauna.

PORLANDI

*Errai gabeko lur gogor, antzu,
zementukiko zolera.
Arkaitza bezain tinko gerora:
aurretik, bigun
buztiñaren arabera...
Porlandi sorra:
pozik dagoit nere aitorra,
ogi-bidean pobreentzako
bera bait-degu lur emankorra.*

*Ez det ikusten
gauean izarrik,
egunez belarririk,
Nere barrutia,
inguru esia,
zementuzkoa det bakarrik.
Zementuz egiñak
etxea, atari:
zementuz galtzara,
zementuz sort-erri.
Bizikera berri.*

*Zementu errian
ez dago kabirik,
ibai ustelean arrairik,
udazken pausoan usorik...
Baiñan utz dezadan
artzai bizitz ezti,
baserri birako
pakezko barruti.
Mindura berrian
kanta nai det beti.
Min det egiazki,
Baiñan obe degu
gauz asko galtzea
eta ez pobreak
goseak iltzea.*

*Min det egiaz utzi bearra
baserria...
Artaldeari labaina sartu.
Atzen pagoak orpotik moztu.
Etxeko tresnak erre edo saldu.
Arbaso zaarren sua itzaldu.
Ategiñeko sarrail nagia
erdoitzen utzi...
Iturria jan osiñak,
untzak orma zaar berdiñak.*

*Gurdibideak urak ebaki...
Mindura au zer dan
pasa zaionak bakarrak daki!*

*Gero errira,
kabi herrira.
Nola onartu nago begira,
Maitasunezko utzitzea det
baserriari agurra.
Biotzetikan onetsi nai det
zementuzko lurra.
Ez det ukatzen galera dala:
ba-du, ordea, etekin.
Baserritikan gutxi dira
bizi-modua dutenak;
ta emen bizi,
al dan ondoen
bizi bear degu denak.
Buka dedilla egoitz tristea:
gizonak lan jakiñik gabe;
umeak ezin jarri eskolaren jabe;
sendakuntzak nai ta,—gogor da au ere—
uri aundiz kanpo, nun daude?*

*Bedeinkatzen det
porlandiak dun galera.
Izadiaren aberastasun
ori galtzea obe da;
eta geienak iritxi bitez
giza-neurriz bizitzera.
Utziko ditut baserria ta
nentorke dana uztera,
utzi agian euskera;
baiñan iritxi bitez,
pobre guziak
eguneroko ogia izatera.*

*Min det gauz asko utzi bearra.
Baiñan au dago bide bakarra
maitaleek etxe bat lortzeko,
gure umetxoak zaldun biurtzeko,
danontzat zer-jana sortzeko.
Porlandi-esiak duan zigorra:
txoriak karioletan,
loreak ontzitan,
jan-gauzak potutan.*

*Baiñan infernura zenbait edergaillu
pobreen lepoa estutuko ba-lu.
Zenbait bizikera nik ezin iñola
onetsi.
gutxiren onean pobreek odola
bear ba-luteke utzi.
Deabruarentzat guzia!
Betor zementua.
Gauean ez det izarrik,
egunez belarririk;
baiñan pobreak,
ain sail luzeak,
orla bakarrik
giza-neurritan litezke bizi!*